

Munstrokeria desbideratze gisa herri-gogamenean. Munstrokeriari buruz

Aitxus Iñarra
EHUko irakaslea

Munstroak normaltasunaren aurkako alderdia adierazten du. Mehatxua eta arriskua ordezkatzeko dituen, bai eta suntsipena eta gizarte-ordenarekiko arriskuaren irudi negatiboa ere.

Munstrokeria anormaltasunari desbideratzeari lotuta dago, eta iraganetik datorren eraikuntza soziala da. Munstrokeriaren historiak mintzatu gara; batez ere, XIX. mendeko mendebaldeko kulturaren eraikitzen diren munstrokeriaren irudiez edo irudikapenez. Era berean, artean eta herri-esparruan betetzen duen rola azalduko dugu.

The monster shows the side against normality. It replaces threat and risk, as well as destruction and the negative image for the risk in society-order.

Monstrosity is linked both to irregularity and to the misguide and it is the social foundation which comes from the past. Now, we are going to talk about its history: mainly about those images of the monstrosity that emerged in the west culture, in the nineteenth century. At the same time, we are going to explain the role it plays in art and in the country.

Munstroen historia konplexua da, bere baitan elkarri loturik dauden hainbat esparru jasotzen baititu: esparru kulturala, soziala, juridikoa eta zientifikoa. Gainera, munstrokeriaren sorkuntza eta eraikuntzak harremana du zenbait diskurtso sozialekin, alde batetik, instituzio-diskurtsoetan (errealitate soziala sortzen duten diskurtsoetan) definitutako arauarekin; eta bestetik, herri-adierazpen desberdinekin.

Diskurtso ofizialak

Munstrokeria anormaltasun-modu bat da arautik urrutiratzen den neurrian. Munstroak normaltasunaren legeak urratzen ditu, eta arautik kanpo dagoenaren eta eskasa denaren aurrean, normala ohikotzat eta arruntzat hartzen da. Beraz, munstroa kopuruari dagokionez eskasa da eta arautik kanpo dago¹.

Munstrokeriariak normaltasunaren aurkako alderdia adierazten du, eta munstroak mehatxua eta arriskua ordezkatzeko ditu. Normala urratzen du eta ordena "normala" hauts dezake, hau da, ordena ezarria. Munstroa askotan alderdi negatiboekin lotu izan da: gaizkia, piztikeria, anabasa, suntsipena, heriotza, etab; funtsean ikara gogorarazten du. Orobat, munstrokeriaren konnotazio horiek guztiek parekide positiboak dituzte; hauek dira, zalantzarik gabe, gizarteari eta ezarritako ordenari dagozkienak.

Munstroak naturalezaren arauak urratu egiten ditu (alderdi fisikoetan), baita arau sozialak edo psikologikoak ere. Halere, alderdi hauek, nolabait, esanahiaren esparruan elkartzen dira; zeren, ohikoa denez, fisikoak alderdi morala sinbolizatzen eta gauzatzen baitu. Eta moral horren ikuskerari dagokionez, ongiaren eta gaizkiaren makineisotik datorrigun banaketa klasikoa da. Banaketa hori beste dikotomia batzuetara zabaltzen da; besteak beste, hauek dira: Bizia eta Heriotza, Instintua eta Arrazoaia, Ordena eta Ordenarik eza, Antropomorfismoa eta Piztikeria, Humanoa eta Mekanikoa (Cortés, 1997: 18). Hortaz, munstroak gaizkia, heriotza, instintua, ordenarik eza, piztikeria, mekanikoa, etab. ordezkatzeko gain, beti negatiboena esleitzen zaio. Eta, legeek, arauak eta gizarteak sortu dituzten debekuak asaldatzen ditu munstroak.

Antzina bezala, munstroaren irudiaren aztarna jarraitu behar dugu hark betetzen duen rolean, egiaz edo sinbolokoki, baina beti eraginkor. Munstroak ukatzen dena erakusten digu, suntsipena eta gizarte-ordenarekiko arriskuaren irudi negatiboa. Munstroa, agian, beldur sozial zaharraren eta ezagunenaren iradokitzaile nagusia da. Hauxe da munstro-izakiari leporatzen zaion funtzioetariko bat. Orobat, bera da deskribapen fisiko, moral eta abarren objektua eta zenbait forma, izaera eta arriskugarritasun zehatz egozten zaizkio.

Munstrokeriaren historiak mintzatuko gara, eta XIX. mendeko mendebaldeko kulturaren eraikitzen diren munstrokeriaren irudiak edo irudikapenak modu sakonago

1. Ildo horretan, marjinazioari buruzko diskurtso menperatzailearen mitologia estatistikoaren ideia jaso eta munstrokeriari aplikatzen diogu; hala, diskurtso horren ikuskera estatistikoaren arabera, «anormaltasunak subjektuetako gutxiri erasaten diela uste da; hortaz, honetan zenbakietan urri dena ez da arbuioarekin bat etortzen, aitzitik, izaera moral eta sozial horren frogak bilakatzen da» (Biurrun, 1985: 221-228).

batez aztertuko ditugu, agerikoa baita sasoi hori gizon eta emakumeena dela, baita ideia eta mugimendu sozialena ere. Egitate horiek guztiek xedatu dute gure mendeko historia. Hala gertatu da esparru anitzetan, baita kriminologiarenean eta desbideratzeari buruzko azterlanetan ere; gauza bera esan genezake, hain zuzen, munstroak betetzen duen rol sozialari, eta zentzu nahiz irudiari buruz ere. XIX. mendeko munstrokeriak, kasu horietan guztietan, errealtate hori irudikatzen duten gaur egungo beste irudietara eta ideietara eramaten gaitu, nahiz eta pentsamolde postmodernoak horrelako egitaterik aintzakotzat ez hartu.

Baina, hasteko, egin dezagun ibilbidea iraganetik: munstroari buruz izan den begirada eta ikuskera aldatuz joan da. Aldaketaren arrazoi nagusiak, besteak beste, hauek dira: faktore askoren menpe egotea eta sortzen denarekiko xedea. Horrela bada, munstroa

1. Izaki mitikoa izan da humanoaren eta ez humanoaren artean, hau da, mitologia edo fabulazioaren alorrean; horrenbestez, baden zerbaite da.
2. Geroago, herri-adierazpenean ere topatuko dugu hainbat adierazpidetan: artean, ikuskizunetan, literaturan, eta abarretan;
3. bai eta zientziarentzat ikasteko objektu bilakatu den subjektu bezala ere.

Nolanahi ere, beti oso estigmatizatuta², itxuragabe eta atabiko gisa agertzen da, portaera arriskutsu eta amoralak edo portaera ez aurreikusia adieraziz (ikuspuntu psikologiko humano batetik).

Munstrokeria iraganean naturaz gaindikoarekin edo erlijiosoarekin erlazionatzen da; horren frogak kultura desberdinetako mitologiak dira. Hauetan magia, boterea eta indarra naturaz gaindiko munstrokeriaren faktore komunak dira. Hona hemen euskal kulturako batzuk: Basajauna, Lamiak, Jentilak, Tartalo, etab. Mendebaldeko kultura erlijiosoan, munstroak indar irrazionalak eta anabasa irudikatu ditu, anabasa horrek munduaren sorrera baino lehenagoko garaia gogora ekartzen du.

Bibliak ere munstrokeriari buruzko adibide ugari ematen ditu, gizaki eran edo animalia moduan: Leviatan, Goliat... Gainera, bekatuaren beldurra eta lizunkeriaren debekuak, kultura judeokristauaren berezkoak, munstrokeriaren bidez adierazten dira maiz.

Erdi Aroan barrena, munstroa desordenari, anabasari, bitxiari eta itsustasunari lotesten zaie, eta itxuragabetasuna irudikatzen du (Kappler, 1986). Ikuspuntu biologiko-natural batetik, munstroa harmoniarekiko munstrokeria da, eta hori agertzen da irregulartasunean, itsustasunean, zorigaitzean, hutsegitean eta inper-

2. Estigma gizabanako batek daukan ezaugarri bati dagokio, gure arretari indarrez ezar dakioko eta bere gainerako ezaugarriak hutsarazten ditu. Estigma harreman mota berezi bat da ezaugarriaren eta bere estereotipoaren artean. Hiru estigma mota aipa ditzakegu: gorputzaren gorrotoak (deformazio fisikoak), gizabanakoaren izaeraren akatsak: borondaterik eza, grina antinaturalak, sineskeriak eta arrazaren, nazioaren eta erlijioaren estigma tribalak, herentziaz transmititu eta familiako kide guztiak kutsa ditzaketenak (Goffman, 1985: 14-15). Uste dugu estigma bat duen pertsona ez dela erabat gizakia. Estigmaren teoria bat eraikitzen dugu, ideologia bat bere gutxiagotasuna azaltzeko eta pertsona horrek dakarren arriskuaz kontu emateko.

fekzioan. Azken finean, ordenarik ezean dago munstrokeria. Munstroa gaizkiaren irudia da, eta irregularitasunaren ondorioa. Bestetik, perfektzioaren ideia, eta ordenarena Erdi Aroko pentsamendu erlijiosotik dator, eta esparru orotara zabaltzen da, normaltasunaren irizpidea antzekotasuna delarik.

Erdi Aroaren bukaeran, munstrokeria deabruarekin harremanetan agertzen da, eta horrela egiaztatzen da egitate hori XVII. mendera arte, Satan hermafrodita gisa ordezkatzan dute, errefusa eta liluraren adierazpen gisa, munstroei hertsiki estekaturik:

Etre composite, hermaphrodite, repoussant dans son physique, mais attirant par la bonhomie de sa figure souriante, ce Satan possède toutes les qualités requises pour susciter à la fois le dégoût et la séduction (Fischer, 1991: 46).

Ildo horretan, itxura fisikoko anormaltasunak eta munstro izateak zerikusia zuen espiritualarekin ere; subjektua susmagarria zenean deabruarekin harremana eduki izanaz, batez ere.

Bestalde, deabruak eta emakumeek munstrokeria irudikatzen dute, ordena soziala arriskuan jartzen duen gaizkia, alegia. Susmo honen pean sorginen ehizaldiak –emakume errundua eta madarikatua– ohiko bihurtu ziren XVI. eta XVII. mendeen artean Europako alde zabaletan eta hildako gehienak –sorginkeria salaketapean– emakumeak ziren. Satan-emakumearen bikotea munstrokeria morala da, bekatuaren edo gaizkiaren bitartez elkartuta. Munstrokeria hori garaiko munstrokeria fisikoaren arauetan islatzen da.

Ordena moralaren eta naturalaren haustura inkuboaren (emakumearekin harremanak dituen deabru maskulinoa) eta sukuboaren (gizonarekin harremanak dituen deabru femeninoa) irudietan gauzatzen da. Sorginkeria boterearen tresna onuragarria izan zen, batez ere, kontrola ezartzeko talde sozial konformagaitzen eta desberdinen gainean, eta homogeneizazioa sustatzeko.

Hala bada, delitua eta bekatua nahasten dira. Legeak, Inkisizioak ordezkatura, zigortzen du, eta heriotza erabiltzen du garaiko ordena erlijioso-soziala asaldatzen duen portaeraren aurka. H. Kraemer-ek eta J. Sprenger-ek idatzitako *Malleus maleficorum* liburua sorginkeriaren aurka jaio zen, Inozentzio VIII.ak 1484an aldarrikatutako *Summis Desiderantes* buldaren ostean. Liburua inkisidoreentzako eskulibururik garrantzitsuena da, deabrua hautemateko bere metodologia du, eta deabruak hartutako gorputzetik jaurtitzeko teknikak erakusten ditu.

Sorginaz gain, badira munstrokeria gisa emakumearen beste bi irudi ordezkagarriak direnak, eta horrenbestez arriskuaren iturri direnak: bakante greziarrak edo haserrekorak eta emakume banpiroa. Lehendabizikoek etxeko eta familiako eginkizunak uzten zituzten, gizonak irentsi, haurrak bahitu eta populazioa hil. Beste emakume banpiroa da, Europako erdialdeko kulturako berezko irudia, batez ere XVIII. mendean, antiama edo ama hiltzaile gisa irudikatzen da.

Sorgina, bakanteak eta emakume banpiroa; emakumezko hiru irudi horiek ezbaian jartzen dute familia monogamoan eta jabego pribatuan oinarritutako gizarte-antolakuntza patriarkala.

Erdi Aroko sasoi horren bukaeran munstroen historia idazteko nahia erakusten da euren existentzia hobeto ulertu ahal izateko. Bazegoen premia handia munstro-ekoizpen horiek eratzeko, euren zergatiak ezagutzeko eta izadiaren ekoizpenak sailkatzeko. Ambroise Paré frantses zirujauaren *Des monstres et prodiges* liburuan (1585), besteak beste, hamahiru zergati aipatzen ditu munstrokeriaren jatorri bezala. Munstrokeria ondokoek sortzen dute, besteak beste:

- Jainkoaren aintza eta sumindurak (1, 2)
- Semenak, kopurua gehiegizkoa edo gutxiegiakoa delako (3,4)
- Irudimenak (5)
- Umetokiaren estugune edo tamaina txikiak (6)
- Emakume haurdunaren kokapenak edo jezartzeko moduak (7)
- Emakume haurdunaren sabelaren aurkako kolpeek edo erorikoek (8)
- Eritasun hereditarioek (9)
- Ustelkeria edo malurak, eta zadora edo nahasketek (10,11)
- Eskale ibiltari gaiztoen engainuak (12)
- Demonio edo deabruak (13)

Sailkapen horrek ondorengo sailkapenetan eragin handia izan zuen, zeren hauetariko zergati askok denboraren joan-etorrian, trinkotasun handiagoz edo txikiagoz, forma desberdinak hartu baitituzte, jarraian ikusiko dugun moduan.

Munstroari buruzko ikuspuntu biologista nagusia da. Ikuspuntu horren erreferentea arauaren eta ordena natural baten existentzia da; munstroak hori guztia hautsiko luke. Munstroaren definizioa arauaren (biologikoa) araberakoa da; horrenbestez, munstrokeria arau horren definizioaren araberakoa izango da. Munstroa arautik kanpo kokatzen da, ordena naturalean edo berezkoan aparteko zerbait da; halere, munstro-subjektuaren aldetik ez dago berariazko urratzerik. Munstroa izadiaren ekoizpen gisa Covarrubiasen *Tesoro de la lengua castellana o española* (1611) liburuan aurkitzen dugu; bertan munstroa honelaxe azaltzen da:

Es cualquier parto contra la regla y orden natural, como nacer el hombre con dos cabeças, quatro braços y quatro piernas (Covarrubias, 1987: 812).

Bestalde, ikusi dugun moduan, naturaz gaindikoaren esparruan, eta zehazki mendebaldeko kultura erlijiosoan, munstroa Satanekin lotuta izan da, eta honen bikotearekin, hau da, emakumearekin. Alabaina, XVIII. mendean munstroa alegiazkoaren (fabulosoaren) arlotik apartatu eta zientziarenera lekualdatzen da.

Zientziaren diskurtso menperatzaileak erlijioaren legitimitatea ordeztzen du, orain zientziak munstroa behatu, aztertu eta azaltzen du, eta munstrokeriaren gainean kategoriak sortzen ditu. Hemendik aurrera zientziaren diskurtso estigmatizatzaileak, baztertzatzaileak eta normaltasunaren sortzaileak bere hitzaren bitartez –hitz legitimoa eta ofiziala– subjektuaren biografia gainjarri du. Zientzia munstrokeria arrazionalizatzen saiatzen da.

Horren harira, Charles Bonnet-en aburuz (1720-1793) munstroa da bere espeziearen gizabanakoekin erkatuta eraketa anatomikoan aldakiak dituen, gehiegikeriaz zein gutxiiegikeriaz. Argien mendean autore askok baieztatzen dute izadiak arau batekiko berezko desberdintasunak egiten dituela, eta desbideratze horien emaitzak munstroak dira. Munstroaren funtzio soziala eta kulturala aldatzen doa, eta neurri batean jakitun-adituaren eskuetan geratzen da egiazko deskribapenaren arabeko subjektu bihurtuz (Fischer, 1991: 9).

Munstroak salbuespen juridiko-naturalarekin zerikusia du, arau biologikoa zein juridikoa urratzen baitu. Baina, XIX. mendean arrazionalizazioaren urratsak egin eta aldaketa bat gertatzen da. Horrela, munstroak gero eta gehiago zientziaren objektu bilakatzen dira garai horretan eta datu anatomikoen arabera izendatuak eta sailkatuak izango dira.

Erregimen zaharra erori ondoren, aristokrazia ordezkatzeko duen goranzko klase sozial berriak, hau da, burgesiak, munstrokeria kolonizatu egiten du, eta aldatu azalpen teologikoa edo naturala azalpen zientifiko eta arrazionalaren alde. Pentsamolde berri horren baitan hainbat atal sortzen dira zientziekin batera. Horrela bada, azalpen biologikoak teratologia zientziari bidea ematen dio.

Horrenbestez, analisiaren aldaketa hau teratologiaren izena hartuko duen 1830eko zientziari dagokio³. Alabaina, azalpen horrek agertzen duen munstroaren botere ikaratzaila gauzatze organikoan edo bere forma fisikoan (hermafroditismoa, sei behatz izatea...) islatzen bada ere, munstro-portaera psikologiaren eta soziologiaren bidez azaltzen da, edo kode etiko berrien eta juridikoen bidez. Horrenbestez, munstro-portaerak dira portaera desbideratu edo subertsiboak direlako. Azken finean, jokabide disfuntzionalak dira.

Frantziako Iraultzaren ondoren Zuzenbidearen arloan, berdintasuna zabaltzen da gizarte-kontratu eta hiritar estatusaren bidez. Orduan, gizonak libro eta berdinak dira legearen aurrean; halere, gizartearen ordena berri honek ez ditu hierarkiak eta desberdintasunak erauzten, baimendu eta iraunarazi baizik, orain ikusiko dugun moduan. Azken finean, Cerroni-k dioen moduan «Zuzenbide liberala tratamendu berdina da baldintza desberdinetan».

Munstroaren diskurtsoa, lehen, naturaz gaindikoan eta erlijio-esparruan inskribatuta zegoen; orain, zenbait diskurtsoren objektu bilakatzen da, diskurtso juridiko eta medikoaren aztergune da, besteak beste. Bi diskurtso horiek berebiziko garrantzia hartzen dute XVIII. eta XIX. mendean. Urte horietan –Frantziako Iraultzaren ondoren– eta ordena sozialaren beharrak direla eta, bi alor horiek sendotu eta garatu egingo dira.

XIX. mendean munstroa zenbait roletan edo portaeratan ordezkatzeko da, portaera arriskutsuan batik bat. Irudi horri dagozkio eroa eta kriminala, baita herriklaseak eta emakume gaiztoa ere.

3. Geoffroy Saint-Hilare (1722-1844) teratologiaren sortzaileetarikoa bat da. Autore hori eboluzio biologikoaren ideia berriei interesatu zen.

Medikuek munstroaren izaera (portaera) gaiztoa (arriskutsua) azaltzen dute. XIX. mendeko medikuntza mentalak eta epai-diskurtsoak izaera anomaloa azaltzen dute eta munstrokeria izaki gisa eraikitzen dute, non erotasuna eta kriminaltasuna batzen diren. Medikuntzatik eta legetik lantzen dituzten diskurtsoetan gai hori ukitu eta garatzen dute. Instituzio horietako egileek esku hartzen dute zenbait subjektu hautatzeko; orobat, hautatutako horiek sartu egiten dituzte euren nosologietan eta diskurtso sailkatzaileetan eta subjektu horien amaiera itxitegia edo heriotza da. Munstroa beti bestea da, anomaloak dira, mututasunera murriztuak eta euren hitzaz gabetuak.

Ero kriminala zientzaren objektutzat hartuta, bi instituzioen eztabaida gunean kokatzen da –medikoa eta juridikoa–. Krimena eta eromena hurbiltzen dira XIX. mendeko ero kriminalak duen irudiaren munstrokeriaren soslaira, medikuntza mentalak sortua. Munstroa gizakiaren gogoan finkatzen da eta arrazoimenaren mugak ezabatzen dira.

Baina, nola azaltzen dute krimenak eta delituzko egintzak egiten dituen ero mota hori? Ero kriminalak dituen berezitasunak herentziaren bidez datozkio. Hau da, bere portaeraren jatorria transmisioan dago, eta herentzia morbidoa dela medio (anomalien igorlea) jaiotzazko delitugilea sortzen dute, zeina geroago ero moral bilakatuko den.

Idea horiei lotuta (herentzia eta jaiotzazko delitugilearena) bi egile aipatu behar ditugu, Morel eta Lombroso:

Mende honetan zorigaitz biologikoa, herentzian⁴ eta familia patologikoan kokatzen da. Munstroak anormala eta eroa dira, endekapenaren eta zibilizazioaren ondorio bat. Morel-ek 1857an kontzeptu hori garatu zuen gizateriaren mitoan oinarrituta. Horrenbestez, gizakia *jatorrizko bekatuaren* zergatiaren menpean dago, hala nola jarraikako endekapenaren arriskuaren pean. Desio fisikoak menperatzen ez dituen gizabanako endekatua piztiaren mailara hurbiltzen da.

Horrela bada, XIX. mendearen bigarren erdian herentzia morbidoaren teoria era laiotuan zabaldu zen eta norberegaturiko izaeren transmisioan sinesten zen. Familia patologikoaren nozioak markatzen du garai hori. Sendagileen ustez, eta XVIII. mendeko herentzia nozioari jarraiki, atsoaren ondorengoak gaixoak dira, maitasunarenak ederrak, eta mozkorrak munstroak sortzeko arriskua du (Ariès eta DUBY, 1994: 571-572).

Ildo honetan, herentzia morbidoa bizioen eta kriminalitatearen lotura da. Lombrosok jaiotzazko delitugilea asmatzen du: hasieran subjektu atabiko gisa (subjektu estigmak ditu fisikoan zein portaeran), eta eboluzionatzen ez denez, ez da sentimendu morala bereganatzera iristen eta ero moral bilakatzen da. Horrenbestez, delikuentzia eromen moralarekin lotzen da (Peset, J.L. & Peset, M., 1975: 522-550).

Bestetik, diskurtso judizialari dagokionez, diskurtsoaren abiapuntua kriminalaren erantzunkizunari buruzko eztabaida da. Ika-mika hori joan den mendeko hogeiko hamarkadan izan zen frantziar estatuan, eta krimen-kasuen

4. Horrek lotura du Paré-k emandako eritasun hereditarioen zergatiarekin.

eromenaren defentsa zabal baterako kanpaina bat hasi zen *monomaniaren* kontzeptua oinarri gisa defendatuz⁵.

Helburua justizia-aretoan alienistek bere esparrua edukitzea zen (Rey, 1990: 52-53). Eztabaida estatu espainiarrera ere zabaldu zen XIX. mendeko azken herenean, eta eroetxean sartzea edo heriotza-zigorra ziren emandako ebazpen judizialak.

Azken finean, medikuntza eta epai-esparruetatik, izaera gaixo eta delituzkoa sartzen saiatzen da hala legeetan nola kategorizazioetan eta nosologietan. Horren harian, jaiotzetiko kriminal eta ero moralari buruzko diskurtsoa kokatzen dugu, hots, munstro morala.

Instituzio-igorle horiek gizarte-eredu bat eraiki nahi dute, gizarte idealizatu eta moralizatuari dagokiona; eta eredu hori, hain zuzen ere, munstroaren ankerkeriak eta gaiztakeriak mehatxatzen dute. Heziketari garrantzi handia ematen diote, zeren heziketarik eta familiaren maitasunik gabe geratzean, gizona moral zentzurik gabeko basapizti bihurtzen baita. Gizarteko elkarbizitza heziketan oinarritzen da, eta heziketa horrek familia du ardatz, eta morala eta erlijioa haren kodeak dira. Familiak porrot egiten duenean, morala suntsitzen da; orduan aberrazioak egiten dira eta munstroak sortu.

XIX. mendeko testuinguru honetan basatiaren irudia ere agertzen da, baina irudi hori klase sozial apalei lotzen zaie, eta haiekiko ikara, errefusa eta arbuioa sortzen da. Munstroaren eta basakeriaren presentzia da benetan gizakiarengan barneratuta dagoena, eta, horren ondorioz, eldarnioak eta irudipenak egiten dira. Hemen, esango genuke nolabait egon badagoela antzinarako itzulera bat, morbido bezala ikusita betiere, izugarri dena gizon piztiaren bidez agertzen baita (Ariès Duby, 1989: 570-571).

Ekarpen horretan, bada, herri-sinismenaz gain, jakintza medikoen eta juridikoen esku hartu zuten.

Ildo berean Paré-k aipatutako zergatien artean («12: eskale ibiltari gaiztoen engainuak»), horietariko bat gezurkeriari zegokion. Portaera hori gizarte-klase edo talde bateko subjektuengan nabaritu eta zenbait subjektuengan zehazten da, zeintzuk munstrokeria fisikoen itxura emateaz gain, sineskeria eta argibide gezurtiak zabaltzen dituzten nonahi, gehienetan dirua irabaztearren. Modu berean, eromena eta kriminalitatea miseriarekin eta herri-klaseen bizi-egoera txarrekin batzen dira XIX. mendean; klase horiek estigmatizatuak daude eta dagoeneko klase arriskutsu, munstro-klase bilakatu dira.

Arriskugarritasunaren ideia emakumearen esparrura ere zabaltzen da. Emakumeak ez zituen lortu gizonezkoak eskuratutako eskubideak; horrela, ez zuen botoa emateko eskubiderik, eta bere eremu bakarra etxea zen gero ere. Baina, emakumea bere askapenaren alde eta bere eskubideen aintzatespenaren alde (bozkatzeko eskubidea) borrokatzen denean, emakumearen munstrokeria diskurtso maskulinoaren objektu bilakatzen da, esaterako prostituzioari lotua.

5. Gogora dezagun 1808 urtean Esquirol-ek monomania gizahiltzailearen kontzeptua sortu zuela.

Prostituzioaren gehikuntza nabaria da, eta, ondorioz, gaixotasun benereok ugaltzen dira: sifilia, batez ere. Gaixotasun hori, hain zuzen ere, klase kontserbadore eta puritanoek erabiltzen dute sexu-harremanak senar-emazteen esparruan bakarrik edukitzeko ideiarekin. Hala, sifiliari munstrokeria leporatu zitzaion, eta anormaltasunaren osagaia zela irizteaz gain, gaixotasun benereok hori emakume prostitutarekin lotzen zen, eta orobat sexualki aske zen emakumearekin (Bornay, 1990: 61-63).

Emakume prostitutaren gaiztakeriak eta makurkeriak Elizaren eta medikuen diskurtso atzerakoi eta sexofobikoetan dute jatorria. Antzeko diskurtsoa egiten dute Lombroso-k eta Ferrero-k *La donna delinquente, la prostituta e la donna normale* obran (1893), prostituzioa emakumearen egitura kriminala dela diotelarik.

Gizonak beldur dio emakumearen (honen gorputzean ernaltzen den) amatasunari, zehazki, munstroa erditzeari beldurra. Horrez gain, emakumearen gaitasun kreatzaile askeak seme-alaba ez-legitimoak sor ditzake. Gizonezkoak, horrela, emakumezkoen gaitasun horrek sortarazten dion bekaizkeriaren aurka ekiten dio, eta berarengandik moralaren bidez ere defendatu egiten da: munstroa debekaturiko desioaren bestialitatearen bidez baizik ez da ezagutarazten. Ama ezkongabea desohorearen zioa da, hau da famili ordena ona mehatxatzen duen leialtasun ezaren adierazpena.

Munstroa herri-adierazpenetan

Munstroaren patua heriotza, bahiketa edo itxialdia da. Berari bizitza soziala eramatea ukatu zaio: literaturan eta hedabideetan hizpide izan da eta oraindik da. Eta orain dela gutxi arte, gainera, artearen eta ikuskizunaren objektua ere izan da.

Artean, eta zehazki Bosco-ren pinturan (1450-1516), munstrokeria ohiko gaia da, munstroak nonahi agertzen dira forma askorekin. Batzuk tradizio zaharraren ikusizko eta literaturazko iturrietatik datoz: deabru antropomorfoak, sugeak, biktimen organo nagusiak jaten dituzten herensugeak... Forma bitxiak ere adierazten ditu: buztanaz eta buruaz osatutako umeak, burutik ateratako hankak, etab. (Bosing, 1973: 33-34). Brueghel Gazteak (1564-1638) munstrokeria ere birsortzen du bere aldaera satanikoan: deabruak, infernu-lurraldeak, kondenatuen torturak... Brueghel d'Enfer deitu zitzaion.

Orobat Goyaren pinturan bere gaixotasunetik aurrera (1792) munstrokeriaren gaia ere nabarmentzen da. Gaizkia, eromena eta gerra munstro-formen bidez agertzen dira bere ikara eta dramatismo betean. Egon badaude sufrikario eta miseria adierazten dituzten itxuragabeko aurpegiak eta irudiak ere, pizti-aurpegiak eta gizakiaren animaliakera antropofagiaren bitartez adierazia (Saturno, kanibalak); prostitutak eta sorginak (Caprichos) zahar eta degradatu irudikatzen ditu. Hori guztia ez da pintoreak ikusten duen gizartearen isla baizik. Mundu bortitz eta ikaragarri oso bat aurpegietan eta gorputzetan islatua. Boscoren pinturretan, Goyarenetan ez bezala, munstrokeria konposizio trebe eta argi baten munduan sartzen da eta nekez ikaritzen gaitu (Bosing, 1973: 31-32).

Horrez gain, XIX. mendeko mendebaldeko gizarteetan eta XX. mendea nahikoa aurrera jo arte, gizaki basatiak ikuskizun ziren eta atzerapen mentalaren kasuak ere erakusten ziren. Estatu Batuetan joan den mendean *freaks shows* direlakoak oso herrikoiak ziren, haietan gizaki anormal mota guztietakoek munstro-ikuskizuna eraten zuten, eta euren aurrean bisitariak izua eta txundidura erakusten zituzten. Barnum-Bailey zirko estatubatuarra *Belle époque* urteetan 30 giza munstro erakusten zituen, zenbait munstro aizunak ziren.

Horrenbestez, ikerkuntza zientifikoaren alorretatik eta burgesiaren aretoetatik herri-jakinminaren alorrera iragaiten zen: jiganteak, itxuragabekoak, gizaki basatiak... honen adibidea da Venus hotentotearraren erakustaldia –emakume hegoafrikarra bere esteatopigia bereziarekin–, European izan zena XIX. mende hasieran (Bartra, 1997: 355-357).

Eroetxeak zirkoaren, eskolaren eta ikuskizunaren funtzioa ongi bete zuen XX. mendean nahikoa sartu arte; esparru horretan munstroaren tokia eroak bete zuen.

Zineman munstrokeria ohiko gaia da. Aipa ditzagun jarraian filmik adierazgarrienak: *Drakula* banpirismoaren aldaeran, *Elephant man* (D. Lynch 1980) animaliakarian, eta munstrokerian *Freaks* (1932) filma gogoratzea merezi du. Azken film horretan Tos Browning-ek zirkorako lan egiten duen gizaki munstro talde baten historia hunkigarria kontatzen du. Film horretan munstroak egiazko pertsonak dira eta dongeenak (fisikoki normalak) munstro moralak dira.

Herriak dituen sinesmenak eta beldurrak herri-literaturan ere agertzen dira. Eta horrek ipuinaren bidez (ipaina ahozko tradizioetik berreskuratua, maiz), batez ere, munstrokeriaren irudien inguruan errealitateak sortu ditu. Horrela bada, elezaharreko pertsonaia bat hezur-mamizko pertsonaian gauzatzen denean, fikzioa eta erreala nahastu egiten dira, munstroaren kasuaren antzera. Ildo horretan, munstroaren irudi argigarri bat, Charles Perrault-en (1628-1703) *Bizar-urdin* ipuinean topatzen dugu. Horretan munstrokeria morala da eta hori pertsonaia nagusiaren portaeran islatzen da. Baina, horrez gain; *Bizar-urdin* pertsonaiak duen besteekiko desberdintasuna bere bizar urdinean datza (estigma); eta desberdintasun horrek, hain zuzen ere, beldurra sortarazten du haurrengan eta emakumeengan:

Zoritxarrez gizonak bizarra urdina zeukan: horrek hain itxura itsusi eta ikaragarria ematen zion, ezen ez baitzen umerik ezta emakumerik ere aurrez aurre izanda ihesari ematen ez zionik (Perrault, 1993: 33).

Itxura fisikoaz gain, munstrokeria bere jokabidean ere adierazten da; zehazki ankerkekiaren bidez adierazten da, zeren emazte-emakumeak men egiten ez badio gizonari, ankerkeria harengana zuzenduko baitio:

Giltza ttiki hau, berriz, beheko solairuko galeria handiaren atzeko aldean dagoen ganbarako giltza duzu... baina ganbara hartara sartzea debekatzen dizut, eta halako moduz debekatzen dizut ere, ze irekitzea bururatuz gero, ez zara nire amorraziotik inon ere salbu egongo (Perrault, 1993: 35).

Literatur pertsonaia hori, antza denez, *Comorre Gizatxarra* delako batekin erlazonaturik dago, honen biktimak ere emazteak zirelako; beraz, *Bizar-urdin* ez da XV. mendeko Gilles de Rais pertsona, okerki eta herriak uste izan duen bezala. Gizon hori Joana Ark-ekoaren tenientea eta jagolea zen; berak filosofoen harria topatu nahi zuen bizi luzea eman ziezaion. Ehunka haur hil zituen bere ikerketa pseudokimikoetarako, eta sutan erre baino lehenago, nonbait, urkatuta hil zen.

Basakeria horren harian, Masters eta Lea autoreek munstrokeriaren kasu horrekin batera, Elisabeth Bathory-rena iruzkintzen dute (1970: 31-36). Elisabeth Bathory kondesak seiehun bat neskato hil zituen. Emakume hori (*contesse hongriose sanguinaire* bezala ezagutua) odoletan sartzen zen bere edertasunari eta mardultasunari eusteko. Herrian zurrumurruek zabaldu ziren haurren, neskatoen eta emakume pixka bat adinduen desagerpenaz; azkenik, antza denez, bere gazteluan itxita hil zen 1614an. Kasu horietan munstrokeria agerian geratzen da, besteak beste, basakeria eta biktimen kopuru esanguratsua eragatik. Egintza horiek boterearen kokagunetik bakar-bakarrik egin zitezkeen; halere, munstro-egintzak dira zorigaiztoko direlako, eta kriminalek klase boteretsuaren subjektuak ere biktima egiten dituztelako.

Bestalde, banpirismoak eta munstrokeriak herri-tradizioarekin lotura izan dute. Banpiroaren mitoa zenbait gairi loturik dago: itzultzen diren hildakoekiko beldurra eta odolaren bizi-indarraren sinismena (Izzi, 1996: 494-497). Banpiroa perbertsio sexualen artean kokatzen du medikuntza psikiatrikoak, eta zehatz-mehatz sadismo-masokismoaren atalean. Sadismoa da, hain zuzen ere, banpiroari dagokiona: bestearengan oinazea bilatzea eta hori eragitea. Mota horretako munstro morala Düsseldorfeko banpiroa dugu (Ey, Bernard eta Brisset, 1978: 88 eta 347).

Odola sarri lotzen zen banpiroari buruzko herri-tradizioarekin, bai eta tradizio zientifiko eta medikoarekin ere. Banpiroa hilobitik itzultzen den hildakoa da. Aspaldikoak dira gauez hilobitik irten eta bizidunen odola xurgatzen duten hildakoei buruzko istorioak; baina, banpiroaren izena XVIII. mendera arte ez da agertuko.

Munstroa irrazionalarekin hertsiki loturik dago, eta irrazionaltasunak modu desberdinetan berebiziko garrantzia hartuko du XVIII. eta XIX. mendeetan. Ezau-garri hori agertzen da psikiatriaren sorreran eta ipuinean. Sasoi horretan genero horrek joera desberdinetan, erromantizismoan, errealismoan eta naturalismoan, garapen handia izan du, hala nola literatura fantastikoaren sorreran, eta misterio eta ikaran girotutako eleberri gotiko ingelesan, batez ere. Genero horretan bortizkeria, ikara eta naturaz gaindiko gertakariak elkarrekin aurkitzen dira. Aldaketa sozial handi eta askotako testuinguru horretan eta hiri eta industri garapena dela eta, munstrokeria, besteak beste, lotuta agertzen da egitate irrazionalekin. Jakina, eromenaz eta krimenez ari gara. Urte horietan munstrokeria orokortzen da.

Industrializazioaren hasierako urteetan, munstroa fabrikazioaren porrota zen; halaxe erakusten digu M. Shelley-ren *Frankenstein* eleberri gotikoak: (1818), medikuak sortutako azpigizaki munstro-umea da Frankenstein, giza gorpuez egina.

Munstro fabrikatu horrek dituen narriadurak ez dira herentziazkoak. Frankenstein munstroa hasieran ona da, baina gero gizabanako suntsitzaile bilakatzen da. Hauek dira hiltzaile bihurtzen duten arrazoiak: sortzailearen arbuioa, tratu txarra, marjinazioa, bazterketa eta bere itxuragabetasuna eta itsustasuna. Azkenik, bere burua suntsitzen du berarengan jaio eta inguratzen duen indarkeriarengatik.

Errealitatearen eta elezaharraren esparrutik beste munstrokeriaren adibide gertuago bat aipatuko dugu: Garaioaren kasua, *Sacamantecas gasteiztarrarena*. Juan Diaz de Garaio (1821-1881) *Gasteizko Sacamantecasen* kasuak, garaiko nekazari horrek eginiko krimenek, Arabako eta inguruko gizartea astindu eta hunkitu zuten. Garaiko autoreen arabera, sei emakume hil eta zenbait atentatu frustratu egin zituen, betiere emakumeen aurka.

Munstrokeria mota hori, emakumeak hiltzen zituen ero hiltzaile bati zegokion. Munstrokeria hori fisikoa baino gehiago morala da; halere deskribapen fisiko horretatik ere ez zen libro geratu gizona:

Jendea sinetsita zegoen Sacamantecasen pertsonaiak errai jakin batzuk erauzten zituela edabeak edo edari miragarriak egiteko; horregatik ezezagun horri Sacamantecas deiten zioten, edo jendeak uste zuen indar herkularreko eta sorginkeriazko boterez betetako munstro gizazpikoa zela. Beste batzuek irudikatzen zuten soroetan zehar ibiltzen zen mamu erratu gisa, bere helburua emakume desleialak eta gazte desbideratuak zigortzea zelarik (Alfaro, 1951: 624).

Sacamantecas elezaharraren pertsonaia ere izan da. Beldurrari lotutako irudi hori haurrak izutzeko erabili da, ezen esaten zen moduan, pertsonaia horrek haurren gantzak ateratzen zituen ukenduak egiteko. Callejo-ren esanetan elezahar hori penintsulan barna zabaltzen da. Eta autoreak ekartzen ditu pertsonaia horri buruzko lekuko herritarrek; hona hemen hauetariko batzuk:

Juana l'Untu, una mujer escondida en una cueva que saca el unto a los críos (bertsio femeninoa), siniestro personaje que llega al extremo de cebar a los niños, como si se tratara de ocas, para luego extraer sus mantecas. También figura entre los seres indefinibles —que podían ser hombres o no serlo— y succionaba las mantecas de los niños díscolos o poco juiciosos hasta dejarlos exhaustos. (Los Sacamantecas) despedazan a los niños como si se tratara de cerdos, para quitarles las mantecas (los trozos de carne alrededor de la parte inferior de la columna vertebral). Cuando los niños se acercaban a lugares peligrosos... (Callejo, 1998: 271-281).

Halere, *Sacamantecas*-en irudiak dituen konnotazioak ez datoz bat Garaioak dituenekin; zeren, elezaharreko pertsonaia disuasioaren tresna gisa erabiltzen baitzen haurrek obeditzeko, eta orain dela gutxira arte *Sacamantecas gasteiztarr*a ere haurrak beldurtzeko erabilia izan bada ere, berak egin zituen krimenak emakumeen kontrakoak ziren. Eta beldur hori erabili zen emakumearen sexualitatearen kontrola ezartzeko.

Horrela ikusten da garaiko XIX. mendeko ohituretan. Giro hartan gurasoek seme-alabak eta anaiek arrebak dantzara laguntzen zituzten, eta gizonezkoen adulterioa onesten zen bitartean, emakumezkoarena gaitz okerrentzat jotzen zen. Emakumea zen famili indarkerien biktima nagusia (Ariès eta Duby, 1989: 278-279).

Sacramantecasi lotutako beste kasu erreal bat Manuel Blanco Romasanta galegoarena da. Hor gantzaren erauzketa eta antropofagia (egitate hau zibilizazioaren mugan dago eta ez da legearen alorrean ukitzen) lotuta daude: Blanco Romasanta, alarguna eta saltzaile ibiltaria, animalien gantzarekin, besteak beste, aritzen zen merkataritzan. Esaten zenez, bere biktimei erraiak atera eta irensten zituen eta hiltzen zituen pertsonen bilgorra atera eta saldu egiten zuen. Ourenseko basoan gertatutako hamahiru krimenen egilea zela aitortu zuen eta 1853an garrotezko heriotza eman zioten.

Risco etnologo eta folkloristak kasu bera jasotzen du likantropia aipatuz (Gubern & Prat, 1979: 83-84). Munstrokeria hemen animalia-izaerakoa da. Gizakiaren eta animalia-izaera horiek identitate berri bilakatzen dira: gizon-otsoa. Auzipetuak berak aitortu zuen moduan, otso bilakatzearen zorigaitza zuenez gero ezin zuen beste modu batez jokatu, eta eutsiezineko bulkada zela eta, bere basapiztiaren instintuak asebeste behar zituen.

Likantropia oso hedaturik dago munduan. Zenbait gizaki basapizti bihur daitezkeelako sinismena eta itxuraldaketa hori praktika magiko batzuen bidez edo nahi gabe gerta daiteke. Geure kulturaren gizon-otsoa dugu. Likantropoa deserrotua eta baztertua da, baina ez da menperatua. Piztia bezala, barne-indarrak bihurtzen du izadiaren partaide. XV. eta XVI. mendean likantropoaren irudia asasinoko sadikoaren gain jartzen da (Izzi, 1996: 295-297).

Munstrokeria jasotzen da orobat autore izengabearen *El pastelero de carne humana y el barbero asesino*⁶ narrazioan, zeinetan 1415eko Parisen gertatutako egiazko kasua kontatzen den, eta munstrokeria antropofagian eta krimenen kopuruan adierazten. Bi pertsonaiek, gozogileak eta bizarginak, lapurtzeko joranak bultzatuta, 143 pertsona desagertarazi zituzten; lehendabizikoak, gainera, gorpuen haragia eramanda pastelak egiteko. Biak gurpildu ondoren urkatu egin zituzten.

Azken solasa

Munstrokeria anormaltasunari zein desbideratzeari lotuta dago, eta iraganetik datorren eraikuntza soziala da. Desbideratzearen existentziak talde bat hartzen du erreferentzia gisa, eta ez gehiengo baten iritzia soilik. Desbideratzea urraketa da sozialki hautematen den moduan, sistema sozial jakin batean indarrean dauden arauen, erregelen urratze edo transgresioa. Desbideratzea erasotzen duen portaera da, arau sozialen eta sistemaren kohesio edo batasunaren aurka erasotzen duena.

Munstrokeria eta desbideratzea elkarri estuki lotuta dauden bi esparru dira.

Munstrokeriaren eta desbideratzearen mugak (hitz hori ez erabili arren) denboraren joanean galtzen dira garai eta inguruabarrak aldatu ahala. Munstrokeriaren diskurtsoa gehiago dagokio agintekeriako kultura bati, kultura erlijioso edo totalitario bati, hau da, desbideratuaren desberdintasunak berdintzen dituen

6. Autore izengabe baten jatorrizko testua seguraski XIX. eta XX. mende artekoa da, garai postromantiko horretan iluna, basakeria eta munstrokeria gogoko osagaiak baitira. Inprimategiak ere zalantzarik gabe adierazten du garai hori.

kulturari, munstro bihurtu eta ezezkotasunaren (negatibotasun) alderdi guztiak ematen dizkionari alegia.

Desbideratzearen hitza gaurkoa da, eta munstrokeriarenak baino erabilpen gehiago eta zabalagoa du batez ere gizarte-zientzietako alorrean. Halere, zentzu tradizionaleko munstroa *zuzenketako instituzioek* euren alorrean txertatu ondoren, munstroaren ikusteko modua aldatu egin dute, nosologien eta kategorizazioen sareetan sartu, eta kontrolatzeko eta zuzentzeko subjektu arriskutsu bihurtu dute. Ez da jadanik munstroa izango, baina, bai ordea, bere egintzak: munstro-egintzak.

Munstrokeriaren beste aldean normala dago. Eta normala da munstroak betetzen ez duena. Munstroak ezinezkoa eta debekatua bateratzen ditu izadiaren legeak eta gizartearenak urratuz. Horrenbestez, munstroa, urratzaile gisa, esparru juridiko biologikoan agertzen da, izadiaren salbuespen bezala eta Zuzenbidearen urratze gisa (Foucault, 1990: 83-84).

Munstroaren izaera edo portaera arriskutsua definitzen dutenak botere soziopolitikoak, alegia, diskurtso performatiboaren boterea dutenak dira; gure gaiari dagokionez, besteak beste, medikuak eta epaileak. Haiek zientzia eta instituzioen diskurtso performatiboaren bozeramaile nagusiak dira, hau da, gizarte-errealitatea taxutzen eta bihurtzen duen diskurtsoaren subjektu pribilegiatuak (Bourdieu, 1985); eta diskurtsoan sortzen duten munstroaren kontzeptua besteari aplikatzen diote.

Baina munstroaren deskribapen negatiboak hobeto azaltzen du egiten duena (bere nahiak, asmoak, ahulezia...) bere erreferentea baino. Deskribapenaren egileak, munstro eta munstrokeriari buruzko diskurtso ofizialen sortzaileak eta ekoizleak dira. Horiek munstroaren irudi negatiboa sortzen dute. Munstroa, azken finean, gizarte-kontrolaren ekoizkina da.

Horrenbestez, hitz ofizialak sortu duen munstro-gorputzak gorputz naturala izkutarazten eta desagerarazten du, hau da, pertsonaia abstraktuak, munstroak, subjektuaren beraren biografia gainjartzen du. Horrenbestez, munstroak hitza galdu du, dagoen botere batek indarrez kendu egin baitio. Munstroa, berez, ez da inongo ordenarena ere, bere hitza desagertu egin da; ezen botereak eraikitzen duen gorputzak –munstroaren diskurtsoetan deskribatua eta eraturia– hezur eta mamizko subjektua estali baitu, hots, subjektuaren gorputz fisiologikoa eta biografikoa. Horrela bada, munstroari buruzko diskurtso horretatik –zilegia eta ofiziala– zenbait errentagarritasun ateratzen da, alegia, abian jarri den gorputz bilakatu horrek bestea jan egin du. Horrenbestez, subjektu “erreal” (biologikoa) diskurtso horien biktima bihurtzen da, gorputz abstraktu horrena, munstroarena.

Bibliografia

- Alfaro, T., (1951): *Vida de la ciudad de Vitoria*, Magisterio Español, Madril.
- Ariès, P. eta Duby, G., (1989): *Historia de la vida privada. IV*, Círculo de Lectores, Bartzelona.
- Bartra, R., (1997): *El salvaje artificial*, Destino, Bartzelona.
- Biurrun, J.M., (1985): “Notas para una crítica de la mitología de la marginación” in Zenbait Egile, *Marginación social*, Imp. de la Comunidad de Madrid, Madril.

- Bornay, E., (1990): *Las hijas de Lilith*, Cátedra, Madril.
- Bosing, W., (1973): *El Bosco*, Londres Thames & Hudson Ltd.
- Bourdieu, P. , (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril.
- Callejo, J., (1998): *Los dueños de los sueños. Ogros, cocos y otros seres oscuros*, Martínez Roca, Bartzelona.
- Cerroni, H., (1977): *Introducción a la Ciencia de la Sociedad*, Crítica, Bartzelona.
- Cortés, J.M., (1997): *Orden y caos. Un estudio cultural sobre lo monstruoso en las artes*, Anagrama, Bartzelona.
- Covarruvias, (1987): *Tesoro de la lengua castellana o española*, Alta Fulla, Bartzelona.
- Ey, H., Bernard, P., Bisset eta Ch., (1978): *Tratado de psiquiatría*, Toray-Masson, Bartzelona.
- Fischer, J.L., (1991): *Monstres. Histoire du corps et des ses défauts*, Syros-Alternatives, Paris.
- Foucault, M., (1990): *La vida de los hombres infames*, La Piqueta, Madril.
- Goffman, E. (1970): *Estigma*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Gubern, R. eta Prat, J., (1979): *Las raíces del miedo. Antropología del cine de terror*, Tusquets, Bartzelona.
- Izengabe: *Causa célebre. El pastelero de carne humana y el barbero asesino*, Despacho de M. Minuesa, Madril.
- Izzi, M., (1996): *Diccionario ilustrado de los monstruos. Ángeles, diablos, ogros, dragones, sirenas y otros*, Olañeta, Palma de Mallorca.
- Kappler, C., (1986): *Monstruos demonios y maravillas a fines de la edad media*, Akal, Madril.
- Masters, R.E.L., eta Lea, E., (1970): *Sexualidad criminal en la historia*, Picazo, Bartzelona.
- Perrault, CH., (1993): *Perraulten ipuinak*, Pamiela, Iruñea.
- Peset, J.L. & Peset, M., (1975): *Lombroso y la escuela positivista italiana*, Castilla, S.A., Madril.
- Rey Gonzalez, A.M., (1990): *Estudios médico-sociales sobre marginados en la España del s. XIX*, Ministerio de Sanidad y Consumo, Madril.